



LESAKA

2022ko aurrekontua. Hasierako onespena

Lesakako Udalak, 2021eko abenduaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, honako erabaki hauek hartu ditu, bertzeak bertze:

1. Hasiera batean onestea Lesakako Udaleko 2022. urterako aurrekontu orokor eta bakarra, baita hura betearazteko oinarriak ere. Gastuak eta diru-sarrerak 3.580.227,19 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoarenak, berriz, 981.530,00 euroko kopuruan orekatuta daude.

2. Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Lesakan, 2021eko abenduaren 24an.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray